



**BORONDATEZKO AURREIKUSPEN
SOZIALEKO ERAKUNDEAK –BASE–
(HILETA-MODALITATEKOAK)**

**EZAUGARRIAK
ETA ONDORIO NAGUSIAK**



TXOSTENAREN HELBURUA:

1. Hileta-modalitateko BASEen sektorearen ezaugarri nagusiak deskribatzea.
2. Erakundeen eta oro har sektorearen egoeraz erakundeetako ordezkariak duten iritzia ezagutzea.



EZAUGARRIAK ETA ONDORIO

NAGUSIAK

- Sektorea leku jakin batzuetan pilatzen da, batez ere Bizkaian (atxikitako 1. mapa ikusi).
- Biztanleei emandako babesak nabarmen zabaldu da (atxikitako 2. mapa ikusi).
- Erakundean bazkidetutakoak sakabanatuta daude.
- Oso ohikoa da familia osoa bazkidetzea.
- Bokazio lokalista dute (gertueneko jarduera-ratioa), nahiz eta eragin-eremua zabaltzeko gogoari dagokionez eskarmentu eta estrategia desberdinak izan.



- Erakundeak oso errotuta daude gizartean; gizartea jabetu egiten baita erakundeok betetzen dituzten eginkizunez eta gizarte-rolaz.
- Erakunde gehienetan, *Elkartasunak* funtsezko ardatz eta motor gisa izaten jarraitzen du, sendo jarraitu ere.
- Erakunde gehienak harro daude euren identitatearekin, eta euren berezitasunei eutsi nahi diete.
- Gehienak aldizkako kuoten bidez finantzatzen dira, nahiz eta zenbait erakundek hileta-gastuak propozionalki hainbanatzen dituzten.
- Kontsultatutako ordezkarien iritziz, bazkideak oso pozik daude erakundeko kideak izatearekin eta hark eskaintzen dizkien zerbitzuarekin.
- Prezioak (batez ere aseguru-konpainienekin konparatuta), konfiantza eta une pertsonal zailetan premiazko behar bat konpontzeko erosotasuna; horra hor bazkideek gehien baloratzen dutena, elkarrizketatutakoek adierazitakoaren arabera.



- Hona antzemandako arazorik ohikoenak: bazkidetutako kolektiboa zahartzen ari da eta ez da batere erraza zuzendaritza-batzordeko borondatezko kideak aurkitzea.
- Bazkidetutako biztanleen adinaren bilakaerari eta horrek etorkizunean izango duen eraginari dagokienez, hiru motatako erakunde daude:
 - Orain edo epe erlatiboki motzera arazo bat dutela jabetzen direnak, baina berori konpontzeko modurik topatzen ez dutenak.
 - Arazoa gairatzen saiatzen hasi direnak, eta lortzeko bidean daudela edo lortu dutela ulertzen dutenak.
 - Arazorik ez dutelakoan daudenak.
- Iraunkortasuna bermatzeko zenbait erakundek ekimen interesgarriak dituztela antzematen da. Hona planteatutako aukerak:
 - Zahartzeari aurre egiteko erreserba-funtsa sortzea, guztientzat eroso izango dena. Erakunde guztiek erabili ohi duten baliabidea da.
 - Bazkide berriak biltzea. Alternatiba hori, ordea, askoz konplikatuagoa da.



- Besteak beste, gizarte eta kultura aldaketak (familiak gizartean duen rola aldaketa, mugikortasun geografikoa gero eta handiagoa,...) modu lausoan antzematen dute.
- Erakunde ugari bai antzematen du eskabide berriei egokitzeko beharra, eta zerbitzu berriak eta anitzak eskaintzekoa ere bai. Dena den, kostu handiagoak, kudeaketa gero eta konplexuagoa izateak eta profesionalizazio handiagoaren beharrak atzera egitera eramaten dituzte, eta, horren ondorioz, planteamendu kontserbatzaileagoak aukeratzen dituzte.
- Zerbitzuaren truke ordaintzen diren prezioak oso desberdinak dira; hein handi batean, jasotako iritzien arabera, udal-tasak desberdinak direlako da, eta, era berean, zerbitzu desberdinak sartzen direlako.
- Hobetze handiak antzeman dira erakundearentzat garrantzi handikoak diren datuak sistematikoki biltzeari dagokionez: bazkideen adina, altak eta bajak, bajen arrazoiak,....



- Informatika-baliabideei dagokienez, ordenagailu-inguruko gabeziak daude, batez ere informazioa informatikoki usteatzeari dagokionez.
- Erakundeen artean harreman gutxi dago, eta, ondorioz, eskarmentua eta ekimenak elkarri trukatzeko ohiturarik ez. Ez dute interes berezirik elkartzeko, nahiz eta erakunde batzuek abantailak edo ahalmenak ikusten dioten kontu jakin batzuetarako lankidetzak-akordio zehaztak egiteari (publizitate orokorra, hornitzaileekin prezioak negoziatzea, eta abar).
- Administrazioa urrutiko kontutzat jotzen dute, eta harekiko mesfidantza antzematen da.
- Gobernu-batzarrak oso heterogeneoak dira, osaketa, eginbeharrak, berritzeko formulak direla eta. Zenbait erakundek, agian, kudeaketaz arduratzen diren pertsona jakin batzuekiko gehiegizko mendekotasuna dute; horrek ez du arazorik sortzen pertsona horiek erakundearentzat lan egiten jarraitzen duten bitartean, baina ahulezia ekar lezake pertsona jakin horiek erakundearen ardatz bilakatzen badira.